Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

292

AGINDUA, 2010eko azaroaren 24koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Bizia para la Inserción Social» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Derioko (Bizkaia) fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen:

AURREKARIAK

1.– María Fernández Carballo, Vanesa Pilar Rodriguez Fernández eta Selene Rodriguez Fernándezek «Fundación Bizia para la Inserción Social» fundazioa eratu dute 2006ko ekainaren 28an Gernikako Felipe Alamillos Granados notarioaren aurrean emandako eskritura publikoaren bidez (734 protokolo-zk.).

Eskritura hori 2010eko ekainaren 29an sartu zen Justizia eta Herri Administrazio Saileko erregistroan.

Fundazioaren helburuen legezkotasuna eta interes orokorra egiaztatzeko, 2010eko irailaren 27an Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa batzartu ostean, iritzi da fundazioaren helburuak legezkoak eta interes orokorrekoak direla; hala ere, lortu nahi diren helburuak eta horiek burutzeko erabilitako baliabide ekonomikoak egokiak direla bermatzeko, agiri osagarriak aurkezteko eskatu zen.

Aipatu agiri osagarriak aurkeztu dira 2010eko urriaren 29an, eta aztertu ostean, erregistroan erregistratzearen aldeko txostena eman da.

2.– «Fundación Bizia para la Inserción Social» fundazioaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

Fundazioaren helburua gizarte-egoera ahuleko taldeei gizarteratzen laguntzea da, gizarteratze hori sustatuz, burutuz, lagunduz, finantzatuz… Horretarako, gisa honetako jarduerak burutuko dira: zentro okupazional bat, laneko zentro berezi bat, baztertuak izateko arriskua duten pertsonentzako tutoretzapeko pisuak ezarri, lanerako prestakuntza, ikastaroak eman eta euren helburuak betetzera bidera dezaketen bestelakoak.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

292

ORDEN de 24 de noviembre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Bizia para la Inserción Social».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Bizia para la Inserción Social», de Derio (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por María Fernández Carballo, doña Vanesa Pilar Rodriguez Fernández y doña Selene Rodriguez Fernández, se ha constituido la denominada «Fundación Bizia para la Inserción Social» mediante Escritura pública otorgada el 28 de junio de 2006, ante el Notario de Gernika, don Felipe Alamillos Granados número 734 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada el día 29 de junio de 2010 en el registro del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, con fecha 27 de septiembre de 2010, se estima que los fines de la misma son lícitos y de interés general; ello no obstante se requiere a que se presente documentación complementaria en orden a garantizar la adecuación entre los fines pretendidos y los medios económicos aportados para ejecutarlos.

A este respecto se presenta tal documentación complementaria con fecha 29 de octubre de 2010, por lo que, a la vista de la misma, se emite informe favorable para su inscripción registral.

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Bizia para la Inserción Social» viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

La Fundación tiene como finalidad promover, realizar, apoyar, financiar, etc., la inserción social de colectivos desfavorecidos a través de actividades como el establecimiento de un centro ocupacional, un centro especial de empleo, pisos tutelados para personas en riesgo de exclusión, formación para el empleo, impartición de cursos y cualesquiera otros que puedan ser conducentes a la realización de sus propias finalidades.

3.– Fundazioaren helbidea, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan adierazten denez, hauxe da: Urbasa Gunea Taldea 20, Derio (Bizkaia).

4.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila (30.000) eurokoa da eta hasieran hamar mila (10.000) euroko ekarpena egin da. Dokumentu bidez hala egiaztatuta geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluetan jartzen duen moduan.

6.– Estatutuetako 11. artikuluari jarraituz fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, Patronatuko kideak, hasieran, honako hauek izango dira:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	María Fernández Carballo andrea	Mugagabea
Idazkaria	Vanesa Pilar Rodriguez Fernández andrea	Mugagabea
Batzordekidea	Selene Rodriguez Fernández andrea	Mugagabea

Denek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Halaxe agintzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en el Grupo Urbasa Gunea n.º 20 de Derio (Bizkaia)

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, de los que se han desembolsado inicialmente diez mil (10.000) euros que ha quedado acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con los artículos 9 y 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 11 de los Estatutos, está integrado por:

Cargo		Duración
Presidenta	Doña María Fernández Carballo	Indefinida
Secretaria	Doña Vanesa Pilar Rodriguez Fernández	Indefinida
Vocal	Doña Selene Rodriguez Fernández	Indefinida

Todos ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaurko egunean Derioko (Bizkaia) «Fundación Bizia para la Inserción Social» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-279 erregistro-zenbakiarekin inskribatzeko agintzea, baita patronatuaren hasierako osaerarena ere. Zeregin hori modu adieraziz onartu dutenak seigarren aurrekarian aipatzen dira.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 24a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-279, de la constitución de la denominada «Fundación Bizia para la Inserción Social», de Derio (Bizkaia) así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 2.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.